BADA BESTE MODU BAT | HAY OTRA FORMA

# INFORME ECONÓMICO



# URTEKO TXOSTENA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ipar Kutxa

## “Beti dago beste pauso bat emateko”

Jose María Arizmendiarrieta jaunaren esaldi horretan Euskadiko Kutxaren pentsamoldea laburbiltzen da, hasiera-hasieratik gidatu gaituena, eta Caja Laboral-Ipar Kutxaren sorrerako jarrera ere laburtzen da. Ipar Kutxak bere bokazioa laburtzeko erabiltzen zituen hitz gakoak **exijentzia, konpromisoa eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna** dira. Hitz ezberdinak dira, baina bat datoz esanguran. Bi kooperatiben ikuspegiak hain hurbil daudelako, hain zuzen, naturaltasun osoz eta arintasunez jarri ahal izan dugu abian gaur egungo proiektu bateratua.

# 12

## “Siempre hay un paso más que dar”

Esta frase de D. José María Arizmendiarrieta sintetiza la mentalidad que desde nuestros inicios ha guiado a Caja Laboral y podría servir también para resumir la actitud con la que hemos nacido, ya como Caja Laboral Ipar Kutxa. **Exigencia, compromiso y adaptación al cambio** es la expresión que utilizaba Ipar Kutxa para resumir su vocación. Son palabras diferentes, pero totalmente convergentes, y esa cercanía en los enfoques de ambas cooperativas es lo que explica la naturalidad y la rapidez con la que hemos podido poner en marcha un proyecto común.





## Kutxa Kooperatiboaren proiektu bateratua.

2012. urtea oso urte zaila izan da finantza-sektorean: aktiboen balioan narriadura bolumen handia kontabilizatu behar izan da, eta zuzkidura horiek egiteko zuhurtzia handiz jokatu behar izan dugu. Baina, 2012a urte garrantzitsua da gure historian, Caja Laboral - Ipar Kutxak bere ibilbideari ekin diolako. Entitate handiagoa eta indar-tsuagoa, bi kooperatiba-proiektu sendoren batasuna, etorkizunari elkarrekin konfiantzaz begiratzeko, baina geure izateari bere-berean eutsiz.

Europa osoan, kreditu-kooperatibek gainerako finantza-erakundeek baino erresistentzia-gaitasun handiagoa erakutsi dute krisian zehar. Caja Laboral - Ipar Kutxan zuzkidura-eskakizun handiak eta sistemako likidezia-arazoak gainditu ahal izan ditugu, handizkako merkatuetan gutxiago arriskatu garelako.

## Un proyecto conjunto de Caja Cooperativa.

2012 ha sido un año muy complicado para el sector financiero, en el que ha sido necesario contabilizar un volumen importante de deterioros en el valor de los activos, con un criterio de prudencia al hacer estas dotaciones. Pero es también un hito en nuestra historia por ser el año en el que la nueva Caja Laboral - Ipar Kutxa inicia su andadura. Una entidad más grande y más fuerte, una unión entre dos sólidos proyectos cooperativos, con la que miramos juntos hacia el futuro con confianza, manteniendo intacta nuestra esencia.

En toda Europa las cooperativas de crédito han mostrado durante la crisis una capacidad de resistencia mayor que el resto de entidades bancarias. En Caja Laboral - Ipar Kutxa se han superado las fuertes exigencias de provisiones y la problemática de liquidez en el sistema, dada nuestra baja exposición a los mercados mayoristas.



## Negozio-eredua berritzen.

Bankaseguruen eredu berria ezartzea izan da ekitaldiko beste gertakari garrantzitsua. Izan ere, gure taldeko aseguru-konpainietako bulegoetan ari ziren aseguruetako adituek gurean dihardute orain. Proiektu hori gure ezaugarria da, hain justu. Gure banku-esperientzia eta Lagun-Aroren asegu-ruetako esperientzia kontuan hartuta, sukurtsal-sare osoan aseguruetako eta finantzetako zerbitzu integrala eskaintzeko aukera dugu. Eredu hori ohikoa da Europako herrialde batzuetan, baina berria Espainian.

## Innovando en el modelo de negocio.

El otro hito del ejercicio ha sido la implantación de un nuevo modelo de Bancaseguros, incorporando en la misma oficina bancaria una red de especialistas en seguros que anteriormente trabajaban en oficinas de las compañías aseguradoras de nuestro grupo. Un proyecto que nos singulariza como entidad que, gracias a la unión de nuestra experiencia bancaria con la de los expertos en seguros de Lagun Aro, ofrece, a través de toda nuestra red de sucursales, un servicio integral que abarca cualquier aspecto relativo al mundo de los seguros y del negocio financiero tradicional. Un modelo habitual en algunos países europeos, pero inédito en España.

Eta hori ez da sukurtsal-ereduaren berrikuntza bakarra; izan ere, ekitaldian zehar kudeatzaileen egitura espezializatua ere garatu da: Partikularren sukurtsaletara joaten direnean, aseguruetan, banku pertsonalean, autonomoetan eta mikroenpresetan espezializatutako kudeatzaileek hartzen dituzte bezeroak. Horretaz gain, enpresentzako sukurtsal-sare berezia ere badugu.

Egoera zaila den arren, eta kontabilitate-balioetan narriadurengatiko zuzkidurak egin behar izan badira ere, Caja Laboral - Ipar Kutxaren negozioaldagai nagusiak finantza-sistemako onenetakoak dira bere ibilbide berriari ekitean: 1.300.000 bezero, 450 sukurtsal, Euskal Herriko bigarren finantza-erakundea eta Estatuko bigarren kreditu-kooperatiba, eta sektorean punta-puntako kaudimena, core capitala eta likidezia-, eraginkortasun- eta berankortasun-ratioak. Estatuko finantza-sistema ezinbestean bankuformatu zehatz baterantz abiatzen den bitartean, zenbakiak dira ordezko aukera finkatzeko gure apustuaren bermerik onena.

Y no es la única novedad en el modelo de oficina, ya que durante el ejercicio se ha seguido desarrollando también la estructura especializada de los gestores: en las oficinas de Particulares los clientes son atendidos por gestores especialistas en seguros, en banca personal, y en autónomos y microempresas. Además de contar con una red independiente de oficinas para las empresas.

A pesar de la difícil coyuntura, y de las dotaciones por deterioros en los valores contables, las principales variables de negocio con las que inicia su camino la nueva Caja Laboral - Ipar Kutxa está entre las mejores del sistema financiero: 1.300.000 clientes, 450 sucursales, segunda entidad financiera del País Vasco y segunda cooperativa de crédito del Estado, una solvencia - core capital y unos ratios de liquidez, eficiencia y morosidad entre los más notables del sector. Los números constituyen el mejor aval para nuestra apuesta por consolidar una alternativa al formato de banco al que se está viendo abocado el sistema financiero estatal.

## Bakoitzaren onenari eutsiz.

Egoerak guri ere eragiten digun arren, gure erakundea lan guztiak eginda iritsi da abiapuntu berri horretara. Horri esker, garenari uko egin gabe, elkarrekin hazten jarraitu ahal izango dugu. Caja Laboral - Ipar Kutxa berriak kreditu-kooperatiba izaten jarraitzen du. Langileak bazkide izanik, eurena den proiektu batekiko konpromisoa bermatzen dugu. Gainera, aurreztaileen kooperatiba ere bada, eta gurekiko loturarik handiena duten bezeroek bazkide bihurtzeko aukera dute.

Erakunde berriaren proiektuak guztiz bere egiten ditu MONDRAGON Taldearen helburuak: enpresa-garapenaren bidez, eta enplegua -batez ere kooperatiboa- sortuz, gizartean aberastasuna sortzea. Balio horiek eta entitateko kideon konpromisoak izaera berezia eta lehiakortasun-abantaila handia eskaintzen digute hasieratik bertatik.

## Manteniendo lo mejor de cada uno.

Aunque no somos inmunes a la coyuntura, nuestra entidad llega a este nuevo punto de partida con los deberes hechos. Esto nos permite continuar creciendo juntos sin renunciar a ser quienes somos. La nueva Caja Laboral - Ipar Kutxa sigue siendo una cooperativa de crédito, en la que los trabajadores son socios, garantizando de este modo su implicación en un proyecto que es suyo. Además, aporta el hecho de ser también una cooperativa de ahorradores, ofreciendo a los clientes más vinculados la posibilidad de participar como socios.

El proyecto de la nueva entidad comparte plenamente los objetivos de MONDRAGON: generar riqueza en la sociedad mediante el desarrollo empresarial y la creación de empleo preferentemente cooperativo. Estos valores, unidos al compromiso de quienes formamos parte de la entidad, nos aportan desde el inicio un factor diferencial y una importante ventaja competitiva.





Gauzak egiteko beste modu bat badela aldarrikatzeko unea da. Banku desberdina sortuz, partaide guztien jarduna batu eta partaide guztiak onuradun izateko: bazkideak, langileak, bezeroak eta gure gizarte osoa.

## Etorkizunari begira.

Zailtasunak zailtasun, geure ontziaren gidari izateak eta ibilbidea argi dugula jakiteak ematen diguten ilusioarekin itxi dugu urtea. Banku-jarduera arduratsua, hurbila eta gizartearekin konprometitua da gurea; pertsonak lehenesten dituena eta parte garen gizartearen garapenean laguntzeko asmoa duena. Kutxa Kooperatiboaren proiektuan, beti izango dugu beste pauso bat emateko.

Es el momento de reafirmar que hay una manera diferente de hacer las cosas. Haciendo un tipo de banca diferente, en el que participan, y del que se benefician todos los implicados, sean socios, empleados, clientes o el conjunto de nuestra sociedad.

## Mirando al futuro.

Así las cosas, y a pesar de todas las dificultades, cerramos el año con la ilusión que aporta el saberse a los mandos de la propia nave y con un rumbo claro, el de ejercer una banca responsable, cercana, y socialmente comprometida, en la que las personas son lo primero y cuyo fin último es contribuir al desarrollo de la sociedad a la que pertenecemos. Un proyecto de Caja Cooperativa en la que siempre tendremos un paso más que dar.

## Ekonomia-oharra.

2012ko ekainaren 30ean, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito- Lan Kide Aurrezkiaren eta Ipar Kutxa Rural, S.Coop. de Créditoren Batzar Nagusiek bi erakundeen bat-egitea onartu zuten. 2012ko urriaren 29an, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak bat-egitea onartu zuen, Espainiako Bankuaren eta gainerako organismo gainbegiraleen oniritzia jaso ondoren. 2012ko azaroaren 1ean, bi entitateak likidaziorik gabe deuseztatu eta Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (Entitate Berria) izeneko kreditu-kooperatiba berria eratu zen. 2012ko azaroaren 2an, bi entitateen aktibo eta pasibo guztiak bertara transferitu ziren.

Jarraian aurkeztuko diren daturik garrantzitsuenak, balantzea eta emaitzen kontuaren epigrafe nagusiak 2012ko azaroaren 2tik 2012ko abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagozkio, eta Entitate Berria eratu zenetik garatutako jarduera errealaren isla dira.

Bestalde, sozietate-eragiketa hori negozio-konbinaziotzat jotzen duten Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauek eskaturiko kontabilitate- eta balorazio-irizpideak ezarriz, 2012ko urteko ekitaldiaren Emaitzen Kontuaren epigrafe nagusiak aurkeztuko dira.

## Nota económica.

Con fecha 30 de junio de 2012, las Asambleas Generales de Caja Laboral Popular Coop. de Crédito e Ipar Kutxa Rural, S.Coop. de Crédito, respectivamente, aprobaron el Proyecto de Fusión entre dichas entidades, siendo el mismo, aprobado por el Ministerio de Economía y Competitividad con fecha 29 de octubre de 2012, previo informe favorable de Banco de España y demás organismos supervisores. Con fecha 1 de noviembre de 2012 se ha procedido a la extinción sin liquidación de ambas entidades y a la constitución de una nueva cooperativa de crédito denominada Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (la Nueva Entidad), a la cual, con fecha 2 de noviembre de 2012, se ha transferido la totalidad de activos y pasivos de ambas entidades.

Los datos más significativos, el balance y los principales epígrafes de la cuenta de resultados que se presentan a continuación, corresponden al periodo comprendido entre el 2 de noviembre de 2012 y el 31 de diciembre de 2012, y constituyen el reflejo de la actividad real de la Nueva Entidad desde su constitución.

Adicionalmente, y en aplicación de los criterios contables y de valoración requeridos por las Normas Internacionales de Información Financiera que consideran esta operación societaria como una combinación de negocios, se presentan los principales epígrafes de la Cuenta de Resultados del ejercicio anual 2012.

# Daturik adierazgarrienak



## DATOS MÁS SIGNIFICATIVOS

milaka eurotan / en miles de euros

| | 2012 |
|---|---|
| **Negozio-bolumena/Volumen de negocio** | |
| Aktiboak guztira Activos totales | 24.363.689 |
| Fondo propioak Fondos propios | 1.318.698 |
| Bezeroen gordailuak Depósitos de clientes | 18.635.657 |
| Bezeroei emandako maileguak Crédito a clientes | 16.502.364 |
| **Kaudimena/Solvencia** | |
| % Kaudimen-koefizientea % Coeficiente de solvencia | 11,16 |
| % Kapital Nagusia % Capital Principal | 10,96 |
| **Kreditu-arriskua/Riesgo de crédito** | |
| Zalantzazko aktiboak Créditos dudosos | 1.214.312 |
| Kaudimengabezietarako hornidurak Provisiones para insolvencias | 976.548 |
| % Berankortasuna % Morosidad | 6,95 |
| % Zalantzazkoen estaldura % Cobertura de dudosos | 80,42 |
| **Errentagarritasuna eta efizientzia/Rentabilidad y eficiencia** | |
| Interesen marjina Margen de intereses | 65.055 |
| Ustiapen-gastuak Gastos de explotación | 33.926 |
| Ekitaldiko emaitzak Resultado del ejercicio | 22.087 |
| Efizientzia (%) Ustiapen-gastuak/Marjina gordina Eficiencia (%) Gastos de explotación/Margen Bruto | 41,60 |
| **Beste datu batzuk/Otros datos** | |
| Sukurtsalak Oficinas | 450 |
| Langileak Empleados | 2.235 |
| - Gizonak Hombres | 1.256 |
| - Emakumeak Mujeres | 979 |

| **Ratingak Ratings** | Indibiduala Individual | Epe laburrera Corto Plazo | Epe luzera Largo Plazo |
|---|---|---|---|
| Moody´s | D+ | NP | Ba1 |
| Fitch-Ibca | bbb | F3 | BBB |



# Balantzea

## BALANCE

milaka eurotan / en miles de euros

| | 2012 |
|---|---|
| Banku Zentraletako kutxa eta gordailuak Caja y depósitos en Bancos Centrales | 354.828 |
| Negoziazio-zorroa Cartera de negociación | 135.094 |
| G. eta I.etan aldaketak izanik, arrazoizko balioan baloratutako beste finantza-aktibo batzuk Otros activos financieros a valor razonable con cambios en PyG | 9.910 |
| Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak Activos financieros disponibles para la venta | 3.650.239 |
| Kreditu-inbertsioak Inversiones crediticias | 16.802.634 |
| Inbertsio-zorroa mugaegunean Cartera de inversión a vencimiento | 1.746.737 |
| Estaldura-deribatuak Derivados de cobertura | 447.458 |
| Salgai jarritako ezohiko aktiboak Activos no corrientes en venta | 348.556 |
| Partaidetzak Participaciones | 114.703 |
| Aktibo materiala eta ukiezina Activo material e intangible | 403.676 |
| Aktibo fiskalak Activos fiscales | 327.594 |
| Gainerako aktiboak Resto de activos | 22.260 |
| **AKTIBOA GUZTIRA TOTAL ACTIVO** | **24.363.689** |
| Negoziazio-zorroa Cartera de negociación | 12.505 |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan Pasivos financieros a coste amortizado | 22.784.056 |
| Estaldura-deribatuak Derivados de cobertura | 81.193 |
| Hornidurak Provisiones | 49.112 |
| Pasibo fiskalak Pasivos fiscales | 79.673 |
| Gizarte Ekintzako Fondoa Fondo Obra Social | 4.658 |
| Gainerako pasiboak Resto de pasivos | 26.552 |
| **Pasiboa Guztira Total Pasivo** | **23.037.749** |
| Fondo propioak Fondos propios | 1.318.698 |
| Balorazioaren ondoriozko doikuntzak Ajustes por valoración | 7.242 |
| **Ondare Garbia Guztira Total Patrimonio Neto** | **1.325.940** |
| **PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA TOTAL PASIVO Y PATRIMONIO NETO** | **24.363.689** |





# Emaitza kontua

Epigrafe nagusiak

## **CUENTA DE RESULTADOS.** Principales epígrafes

milaka eurotan / en miles de euros

| | 2012 Entitate Berria / Nueva Entidad | 2012 Negozio-konbinazioa (*) / Combinación de negocios (*) |
|---|---|---|
| **INTERESEN MARJINA MARGEN DE INTERESES** | **65.055** | **329.511** |
| Komisio Garbiak Comisiones Netas | 16.162 | 87.606 |
| Kapital-Tresnen Errendimendua eta Finantza Eragiketen Emaitzak Rendimiento de Instrumentos de Capital y Resultados de Operaciones Financieras | 2.165 | 15.845 |
| Beste ustiapen-emaitza batzuk Otros Resultados de Explotación | -1.837 | -14.400 |
| **MARJINA GORDINA MARGEN BRUTO** | **81.545** | **418.562** |
| Ustiapen-Gastuak Gastos de Explotación | 33.926 | 183.861 |
| **SANEAMENDUEN AURREKO EMAITZAK RTDO. ANTES DE SANEAMIENTOS** | **47.619** | **234.701** |
| | | |
| **HORNIDURAK ETA BESTE SANEAMENDU BATZUK PROVISIONES Y OTROS SANEAMIENTOS** | **25.280** | **981.602** |
| Kredituak eta Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak Créditos y Activos financieros disponibles para la venta | 15.346 | 704.202 |
| Esleituak Adjudicados | 7.936 | 199.073 |
| Ibilgetua eta partaidetzak Inmovilizado y Participaciones | 1.100 | 41.227 |
| Arrisku kontingenteak eta beste batzuk Riesgos contingentes y otros | 898 | 37.100 |
| | | |
| **EKITALDIKO EMAITZA RESULTADO DEL EJERCICO** | **22.087** | **-528.585** |

(*) Europar Batasunak horrelako integrazio-prozesuetarako (negozio-konbinazioak) onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauei jarraiki. Entitate berriaren emaitza eta erreserben kontra kargatutako saneamenduek barne hartzen dituzte 2/2012 eta 18/2012 Errege Dekretuen aplikazioak, beste aktibo batzuen saneamenduak eta estaldura generikoa legez baimendutako mugaraino igotzeak eragindako zenbatekoak.

(*) Siguiendo las Normas Internacionales de Información Financiera adoptadas por la Unión Europea para los procesos de integración (combinación de negocios) de estas características. Los saneamientos, ya cargados contra resultados y reservas de la nueva entidad, abarcan los importes resultantes de la aplicación de los Reales Decretos 2/2012 y 18/2012, el saneamiento de otros activos y el incremento hasta el máximo permitido de la cobertura genérica.

Batzar Nagusiak erabaki behar dituen finantza-egoerak eta gainerako agiriak bazkideen eskura daude helbide sozialean eta Entitatearen Lurralde-Zuzendaritzetan.

Baita www.cajalaboral.com webgunean ere (2013ko apirilaren 27tik aurrera).

Euskera

castellano

Los estados financieros y demás documentos sobre los que deba decidir la Asamblea están a disposición de los socios en el domicilio social y en las direcciones regionales de la entidad.

Y en www.cajalaboral.com (a partir del 27 de abril de 2013)